

Umorea unibertsala da

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

*Ariketa-sorta honetan, Mikel Pagadi umorista, gidoigilea eta telebista-aurkezlea izango dugu protagonista. Umoreari eta “**Herri txiki, infernu handi**” telebista-saioari buruz hitz egin dugu berarekin. Gai honen inguruan, hainbat ariketa egin ditzakezu:*

- Gaiari sartzeko galderak erantzun.
- Bideoa ikusi eta erantzun zuzena aukeratu.
- Testua irakurri ondoren, esapideak gaztelaniara itzuli eta esaldi bana osatu.
- Binaka, umore-kontuetan dituzun gustuez hitz egin, eta taldean adostu.



Jarri binaka eta erantzun galderak:

- Noiz egin zenuen barre gogotik azken aldiz?
- Zer iruditzen zaizu barregarria edo zerekin egiten duzu barre?
- Ikusten al dituzu telebistako umorezko saioak? Zein da zure gustukoena?
- Ezagutzen al duzu umoregile euskaldunik edo euskarazko umore saiorik?

1- Mikel Pagadi



Bideo honetan Mikel Pagadi umorista, gidoigile eta telebista-aurkezleari egin diogun elkarrizketa ikusiko duzu. Umorea eta Herri txiki, infernu handi programa izan ditugu hizpide. Bideoa ikusi ondoren, aukeratu galderen erantzun zuzena.

1. Nola hasi zen Wazemank-en lanean?

- Kasualitatez, Nagore Aranburuk Alkainengana eraman zuelako.
- Kasualitatez, Alkainek programa horretan lanerako aukera eskaini ziolako.
- Nagore Aranburuk lana eskaini ziolako.

2. Nolakoa da Mikel?

- Lotsatia, baina umorea erraz ateratzen zaio.
- Ez du umorerako joerarik, lanagatik egiten du.
- Etxean umoretsuagoa da kanpoan baino.

3. Txistek egiteko inspirazioa zerk ematen dio?

- Ezagutzen dituen zenbait pertsonak.
- Momentuaren arabera egunerokotasunak, eta beste programetako esketxak ikusteak.
- Ikusten dituen beste programetako esketxek bakarrik.

4. Umorea...

- ez da unibertsala, herri batzuetan ez baita lantzen.
- berdina da herri guztietan. Txistek berdin funtzionatzen dute hemen eta Norvegian.
- unibertsala da, baina herri bakoitzak bere kodeak ditu.

5. "Herri txiki, infernu handi" saioak nolako harrera izan du?

- Ondo atera da, errespetuz adarra jotzera joan direlako.
- Ez da oso ondo atera, baina jendeak eskuzabal hartu ditu beti beraiek.
- Ondo atera da; herri guztietan ondo hartu dituzte beti beraiek.

2- Pagadiri elkarrizketa

Irakurri Mikel Pagadiri egindako elkarrizketa eta ondoren, "umore" hitzarekin loturiko zenbait esapideri erreparatuko diezu.

Mikel Pagadi: "Umorea unibertsala da"

Mikel Pagadizabal Amiano (Villabona, Gipuzkoa, 1974) umorista, gidoigile eta telebista-aurkezlea da, eta Euskal Telebistan egin da ezagun *Wazemank*, *Noaoa!*, *Airean* edo *Herri txiki, infernu handi* telebista-saioei esker. Beti umorearekin lotuta egin du lan, eta horrela "sailkatzen" dutela esan digu. Kontatu digunaren arabera, askok hala uste badugu ere, komedian lan egiteagatik ez dago egun osoan irria ezpainetan duela. Pagadi gertutik ezagutzeko aukera izan dugu, eta umore onean erantzun die egin dizkiogun galderari.



1. Nola hasi zinen telebistan lanean?

Orain dela hamalau urte hasi nintzen, eta kasualitatez. Publizitatean egiten nuen lan eta Angel Alkainek berarekin lan egitea eskaini zidan. Garai hartan, bistaz ezagutzen genuen elkar, eta, *Wazemank* telebista-saioa eman ziotenean, esan zidan: "Zuk buru aldrebesa duzunez, esketx batzuk idatziko dituzu?". Inoiz horretan lanik egin ez banuen ere, Nagore Aranbururekin proba egin nuen eta beregandik ikasi dut dakidan guztia edo gutxia, berari esker.

2. Gaztetatik zara barregarria edo ikasi egin duzu?

Nahiko lotsatia naiz eta umorera jotzeko joera izan dut beti, bizitza hobeto eramaten delako. Hala ere, etxean ez naiz oso umoretsua izan... Baina erraztasun handiagoarekin ateratzen zait umorea beste ezer baino.

3. Zerk inspiratzen zaitu?

Txistek erraz ateratzen zaizkit, momentuaren arabera, baina normalean beste programa batzuetako esketxak ikusita edo eguneroko zerbaitetan inspiratuta. Nik arretaz begiratzen dut: horko gizona, hango emakumea... Egoerari buelta eman eta umorea egiten dut. Arazoak ere ekartzen dizkigu horrek, askotan ondo ez dagoen zerbait esaten dugulako. Kontuz ibili behar dugu, neurtu.

4. Inoiz esan dizute zure txistek min eman diola norbaiti?

Niri ez zait egokitu, baina badakit jendea sumindu daitekeela umorea egiten badut. Hala ere, haserre egoteak ez dio arrazoia ematen. Beti dago horretarako arriskua. Facebooken, adibidez, katu baten argazkia jartzen badugu, norbaitek esan dezake: "Eta txakurrak, zer?"

5. 'Euskal umorea' existitzen da?

Nire ustez, umorea unibertsala da, baina egia da herrialde bakoitzak bere berezitasunak dituela. Hemengo kodeak agian ez dira Norvegiar ulertuko. *Herri txiki, infernu handi* Danimarkako formatua da eta hango txistek ez dute berdin funtzionatuko hemen. Hala ere, mekanismoak uni-

bertsalak dira, gag batek beti izango du aurkezpena, garapena eta leherketa. Horregatik, funtzionatu egingo du hemen, han edo Ameriketara, leku bakoitzeko berezitasunekin.

6. Eta zuk, zerekin egiten duzu barre?

Nik gauza sinpleekin egiten dut barre: norbaitek estropezu egin eta erortzen denean, adibidez. Telebistan, *La Resistencia* edo *La hora chanante* programekin... Txistea zuzena eta apaingarri gutxikoa bada, barre egiten dut. Esketxa landua bada, ona dela pentsatzen dut, baina irri txikitxo bat geratzen zait ezpainenetan. Estropezuarekin, berriz, algara egiten dut.

7. Egunaren % 95 serio igarotzen duzula irakurri dugu... Hala da?

Nahiko pertsona ozpindua naiz izatez. Lotsatia naiz, oso azkar hitz egiten dut eta jendeak askotan "honek zer egiten du?" pentsatuz bezala begiratzen dit. Umorea nire autodefentsa da. Hala ere, komedia egiten dudan arren, ez nago egun guztia alai. Horren errua hanka-sartzei buruzko eszenek dute: *Herri txiki*, *infernua handi* saioaren amaierakoak agian aste osoko grabaketetako hiru momentu dira. Besteetan gainerako lanetan bezala aritzen gara, askotan maldizioka.

8. Zergatik *Herri txiki*, *infernua handi* saioaren arrakasta?

Proiektua proposatu zidatenean, ez nuen neure burua kamera aurrean ikusten, baina saiatzeko esan zidaten eta horixe egin nuen. Ongi irten da, gaizki atera zitekeen bezala. Emititzen hasi aurretik, jendeak adarra jotzera joango ginela uste zuen. Izan ere, ni esketxak egitetik nentorren eta Zuhaitzek bakarrik egiten zituen. Gu jendearengana errespetuz joaten gara, ez dugu pertsonaiarik interpretatzen, gu geu gara, eta oso ongi hartzen gaituzte, zoragarria da. Etxe batean bizkotxoa, bestean odolkia, beste batean txorizoa ematen digute... Askotan hiru aldiz gosaltzen dut. Gurekin oso eskuzabalak dira eta etxeko ateak irekitzen dizkigute. Harrituta gaude audientziekin. Lehen esan dudana bezala, formatua Danimarkakoa da eta Katalunian ere egin dute. Guk geure estilora egokitu dugu, eta argi ikusten da Zuhaitzek eta biok oso ongi ulertzen dugula elkar. Nik ez dakit zein den arrakastaren gakoa, baina ziur zerikusia dutela garen bezalakoak izateak eta pertsonaiarik ez interpretatzeak.

9. Nola daramazu ezaguna izatea? Kanean jende asko hurbiltzen zaizu?

Euskal Herrian, oro har, jendeak errespetatu egiten gaitu. *Herri txiki*, *infernua handi* egiten hasi ginenetik, gaztelaniaz hitz egiten duen jendea ere etorri da nigana, nire harridurarako: "Oye, me río mucho contigo; no os entiendo, pero mi hija o nieta sí".

Bestalde, egia da jendeak uste duela beti egon behar dugula umoretsu. Kutxazainean dirua ateratzen egon eta esan didate, "Pagadi, esan zerbait" eta nik "Zu zer zara, okina? Bada egin ezazu opil bat!". Hala ere, normalean ez da ezer gertatzen, ni diskretua naiz, eta, betaurrekoak kentzen baditut, ez nau inork ezagutzen!

Mikel Pagadik dio ez dela beti umoretsu sentitzen. Nola emango zenituzke gaztelaniaz esapide hori eta antzeko hauek?

1. Umoretsu sentitzen zen:
2. Umore onez aurkitu dugu:
3. Umorezko saioak egiten ditu:
4. Umore txarrez jarri zen:



Erreparatu gaztelaniaz "de humor" esaten denean beti ez dela berdin itzultzen. Osatu esaldi bana goiko esapideekin. Erreparatu adibideari:

1. Egun txarra izan zuen; hala ere, umoretsu sentitzen zen.

2.

3.

4.

3- Hau den/k umorea!

Zein dira zure gustuak eta zaletasunak umoreari dagokionez? Beheko galderari erantzun binaka, eta ondoren, adostu taldean. Erreparatu erantzun-adibideei.

Zein da barregarria iruditzen zaizun umorista ezagun bat?

- Nire ustez, Mikel Pagadi oso barregarria da, ibiltzeko daukan moduarekin bakarrik barrez lehertzen naiz.
- Egia da Pagadi ona dela, baina niri David Guaporen bakarrizketa eta abestiak gustatzen zaizkit, ezin diot barreari eutsi.

Eta telebistako programa barregarri bat?

- Nik Wazemank telebista-saioko atal guztiak ikusi ditut, eta onena zen, zalantzarik gabe.
- Agian ona izango zen, baina nik ez nuen inoiz ikusi. Niri Buenafuenteren saioak gustatzen zaizkit, bere bakarrizketak bai direla onak.

Esketx edo gag dibertigarri bat?

- Gogoan dut Alkain eta Iraola Euzkitze eta Tolosarena egiten ari ziren batean zenbat barre egin nuen: ez dakit zer esaten ari ziren, baina pilotariek dituzten ohituren inguruan hitz egiten zuten...
- Egia da bai. Esketx haiek oso onak ziren. Hala ere, Vaya Semanita etorri zait niri burura. Txikiteroenak asko gustatzen zaizkit.



1- Mikel Pagadi

1- Nola hasi zen Wazemank-en lanean?

Kasualitatez, Nagore Aranburuk Alkainengana eraman zuelako.

2- Nolako da Mikel?

Lotsatia, baina umorea erraz ateratzen zaio.

3- Txisteak egiteko inspirazioa zerk ematen dio?

Ezagutzen dituen zenbait pertsonak.

4- Umorea...

... ez da unibertsala, herri batzuetan ez baita lantzen.

5- "Herri txiki, infernu handi" saioak nolako harrera izan du?

Ez da oso ondo atera, baina jendeak eskuzabal hartu ditu beti beraiek.

2- Pagadiri elkarrizketa

1. Umoretsu sentitzen zen: **(Se sentía de buen humor)**
2. Umore onez aurkitu dugu: **(Lo hemos encontrado de buen humor)**
3. Umorezko saioak egiten ditu: **(Hace programas de humor)**
4. Umore txarrez jarri zen: **(Se puso de mal humor)**